



Behin eta berriz, Euskaraz Biziz

Gurasoen txokoa Korrika, euskara elkarri emanaz
Zertan gabiltzan Potto irratia berriro martxan



agenda

URTARRILA

LEHEN HEZKUNTZA

1. mailakoak: Ekaingo kobazulora bisita.
2. mailakoak: Bilboko Itsasadarra itsas museora bisita.

DBHO

2. mailakoak: Nafarroako Unibertsitatearen aurkezpena.
2. mailakoak: Mondragon Unibertsitatearen aurkezpena.

OTSAILA

OROKORRA

Euskal Inauteriak. Desfilea eta dantzak herrian.
Euskaraz Bizi eguna. Hainbat jarduera kalean zehar.

LEHEN HEZKUNTZA

1. mailakoak: Ikasleek egindako *Lehen gizakiak* antzerki emanaldia.
3. mailakoak: D' elikatuz-era bisita.
3. mailakoak: *Txoriburuak* filma ikustera.
5. mailakoak: Agenda 21 plangintza.
5. eta 6. mailakoak: Eguzki panelak Ordizian zehar.
5. mailakoak: D' elikatuzera bisita, dieta orekatuari buruz.
5. mailakoak: D' elikatuzera ogia egitera.
6. mailakoak: Ahoz ahoko ikastaroa.
6. mailakoak: Zuhaitz eguna.

MARTXOA

OROKORRA

Kultur Astea.
Euskararen normalkuntzarako kidetutakoen arteko ekintzak.
Korrika eta Korrika txikia.

LEHEN HEZKUNTZA

1. eta 2. mailakoak: Herri Antzokian *Winky* pelikula.
1. mailakoak: Janariaren gaia lantzeko D'Elikatuz interpretazio zentrorra bisitaldia.
1. mailakoak: Umei osasunaz hitz egiteko mediku baten bisitaldia.
2. mailakoak: Abesbatza, jubilatuen etxera, Hiri Hezitzailea proiektuaren baitan.
2. 3. eta 4. mailakoak: Kutxa Espaziora irteera.
3. mailakoak: Ipuin kontaketa.
3. mailakoak: Inglesezko antzerkia Haur Hezkuntzako ikasleei.
3. mailakoak: DBHkoen dantza ikuskizuna.
4. mailakoak: Zubietara irteera Errealaren entrenamendua ikustera.
4. mailakoak: Euskadi irratria irteera.
6. mailakoak: Idazlea ikastetxean.

DBH

1. mailakoak: Arriarango urtegia, eta Legorretako araztegia bisita.
2. mailakoak: Segura eta Zerainera irteera.
2. mailakoak: Sexu heziketa.
3. mailakoak: Somportera ikasbidaia.
3. mailakoak: Uxue Alberdi idazlearen bisita.
4. mailakoak: Sexu heziketa.

DBHO

1. mailakoak: Orientazio ikastaroa.
1. mailakoak: Euskal dantza jaialdia.
2. mailakoak: Selektibitateko matrikula, eta EHUra aurrematrikula.



MANU OLANO
Jakintza ikastolako zuzendaria

Komunitate izate hori

Udaberriarekin batera heldu zaigu *Jakintzazu*-ren ale berria, eta dagoeneko badira berrogeita bat. Gure komunitatearen bizitza agertzea, islatzea eta, batez ere, indartzea da bere helburu nagusia. Hitz esanguratsua da komunitatearena eta are esanguratsuagoa eskolari lotzen zaionean. Eskola komunitateari buruz mintzo baldin bagara, pertsonaren heziketa bere osotasunean, bere eremu guztietan lantzea du helburu nagusizat komunitateak. Inolaz ere ez, eremu akademikoa edo instrukzioa bakarrik.

Helburu nagusia hori izanik, ezinbestekoa da komunitateko eragile ezberdinen partaidetza, parte hartzea, parte izatea, helburuak partekatzea... Nahi duzuen bezala. Mila aldiz errepikatutako diskurtsoa izan arren, ezin ukatu bere zailtasunak edo sorginkeriak badituela praktikan jartzeko garaian.

Entzun izan dugu, diskurtsorik onena baina hobea dela norabide horretan, martxan jarritako praktika xume bat. Horrela izan delako, eta adibide bat delako, aipatu behar dira ikastolako geletara joan etorrian jardun diren guraso guztiak. Ikasturte erdia pasa denean, gelaka elkartu diren guraso guztiez ari gara. Gure komunitatea indartzeko helburuarekin, komunitateko beste eragileekin elkarlanean, heziketa bere osotasunean axola zaigulako.

SER PARTICIPES DE LA COMUNIDAD

Uno de los objetivos principales de la revista *Jakintzazu*, además de mostrar y reflejar la vida de la comunidad escolar, es fortalecerla. El objetivo prioritario de una comunidad escolar es la de formar a las personas en su integridad, partiendo de un factor imprescindible como es la participación real de todos los miembros de la comunidad escolar. Estos días hemos realizado una práctica interesante en ese sentido. Han sido muchos los padres/madres que se han acercado a las reuniones de aula para analizar y mejorar la práctica de nuestra comunidad.

KORRIKA, COMPARTIENDO EL EUSKERA

La 18 edición de la Korrika partió el 14 de marzo de Andoain, y durante once días recorrerá la geografía de Euskal Herria. La Korrika pasó por Ordizia el mismo día 14 de marzo, y muchos padres-madres, trabajadores y alumnos de nuestra ikastola se acercaron para participar en la Korrika. Este año, debido al mal tiempo, no se ha podido celebrar la "Korrika txikia" entre los alumnos de diferentes centros de Ordizia. Sin embargo, los alumnos de Jakintza celebraron la "Korrika txikia" en el patio cubierto de San Ignacio.

REUNIONES DE PADRES-MADRES

Acaban de realizarse diversas reuniones de padres-madres en nuestra ikastola. Los Representantes de cada aula, han realizado una labor muy importante con la finalidad de impulsar la participación de los padres-madres en la marcha de la ikastola y a la vez, mejorar la práctica educativa.

KORRIKA, EUSKARA ELKARRI EMANEZ

Korrika 18a ekintza ugariz hornitua abiatu da. Euskararen aldeko lasterketa erraldoi hau martxoaren 14an hasi da Andoainen, eta Euskal Herria zeharkatuko du 11 egunez. Bi mila kilometro baino gehiago egin ondoren, Baionan amaituko da. Korrikan, adin eta mota guztietako korrikalariak ari dira parte hartzen.

Korrika Ordiziatik, hasitako egun berean igaro da, eta bertan ikasle, irakasle eta gurasoek gogoz hartu dute parte. Denek ere elkarri euskara ematea aldarrikatu dute, aurtengo leloak dioen bezala.

Baina ez da hori bakarrik izan. "Korrika txikia" egiteko asmoa genuen Ordiziako ikastetxet guztien artean. Eguraldi txarra medio, bertan behera geratu zen ekimena.

Jakintzako ikasleek ordea, aurre egin zioten eguraldiari eta San Inazioko patio estalian gauzatu zuten beren ekitaldia giro ezin hobean.

Aurrez, Ikastolen Elkartek prestaturiko Unitate Didaktikoaren lanketan gustura aritu dira gure ikasleak, erabat motibatuta, euskararen alde eginez eta erabilera sendotuz.

Korrikarako petoa egiten ere trebetasun bikaina erakutsi dute. Txukun-txukun aritu dira. Horiek soinean eta indarra oinetan jarriz, martxoaren 14an "korrika txikian" parte hartu dute.

Ttipi ttpa, ttipi ttpa, ko-ri-ka!!

"Bukatu al da baino?" -zioten gure txikiek. Hauek bai sasoia, hauek!



GURASOEKIN BILERAK

Ikasturte erdialdera gela guztietan egin ohi diren bilerak orain dela gutxi amaitu dira. Geletako ordezkariak bideratuta, guraso guztiek aukera izan dute ikasturtearen martxari buruz dituzten iritzi, zalantza, eskaera edo ekarpenak egiteko.

Bilera horien helburu nagusia

gurasoen partaidetza sustatzea da eta, bide batez, Jakintza ikastolaren funtzionamendua eta bere Hezkuntza Proiektua hobetzea. Ikastolarentzat garrantzia handiko foroak dira, eta bilera horietatik ateratzen diren ekarpenak oso baliagarriak direla azpimarratu beharra daukagu.



EUSKARAZ BIZI EKIMENAREN EUSKARA ERAKARGARRI BIHURTZEA,

23 urte dira Jakintza ikastolan Euskaraz Bizi egitasmoa martxan jarri zela. Geroztik, urtero-urtero egin izan ditugu erabilera neurketak hasierako errealitate gordin hura asko hobetu da.

Egia da euskara hautatzeko garaian eragile askok egiten dutela indar ikasleengan eta ikasle taldeetan. Horien ondorioa besterik ez da urtez urteko errealitatea aldakorra izatea.

Beraz, aldaketak aldaketa, Euskaraz Bizi taldeko arduradunek diotenez, Euskaraz Biziren harira hizkuntza errealitatean eragiten da, eta etengabe jarraitu beharrean gara arestian aipatutako ikastolaz kanpoko eragile horiek ere euskararen aldeko bihurtzen joan daitezten.



"Ikastolen mugimenduan aspaldikoak garenok uste genuen euskara ikasiz eta euskaraz ikasiz, besterik gabe, ikasleak euskaldunduko genituela, eta hari beretik joango ginela gizartea ere euskalduntzen" dio Antton Amondarainek, Jakintza ikastolako irakasle ohi eta Euskaraz Bizi ekimeneko sustatzaileetako batek. Denborak erakutsi du, ordea, hori ez dela nahikoa. Hau da, euskara ikasi eta euskaraz ikasteaz gain, behar dela zerbait gehiago ikaslea euskarara hurbiltzeko, beraz hautatzeko eta hitz eginaz eroso eta gustura sentitzeko.

gehiago matrikulatzen dira, gero eta ikasle gehiagok daki euskaraz, baina erabilera ez da hori islatzen.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak argitaratu berri duen Arrue ikerketak hori zehazten du. 2011 urteari dagokion azterketak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko eskoletako euskara erabilera neurtu du eta ikus daiteke gela barruan euskararen erabilera hazi dela, baina gelatik kanpoko ez datorrela bat gela barrukoarekin. Horrela, 9-10 urte arteko ikasleen %60 aritzen da euskaraz ikasgela barruan, baina eremu horretatik kanpo,

%60k gaztelera jotzen du; 13-14 urteko gazteen kasuan berriz, %60k gaztelera darabilte ikasgela bertan, eta kalean lautik hiruk. "Datu horiek, oro har, eskasak dira eta erakusten dute batetik, eskolak ere egiten duena baino gehiago egin behar duela eta bestetik, kanpo eragileekin batera lan eginez inguruko baldintzetan ere eragin egin behar dela", dio Anttonek.

Ordizia herriko datuei begiratu gero, EAeko joeraz gaindi dago. 2011. urtean Soziolinguistika Klusterrak euskararen erabilera inguruko kaleko neurketa egin zuen, eta haurren artean, ikasgelatik kanpo, %57k euskara hautatzen zuen komunikatzeko garaian, eta gazteen artean %44k. Datu hauek aurreko neurketakoekin alderatuta, adierazten dute euskararen erabilera hazten ari dela

ESPERIENTZIA JAKINTZA IKASTOLAN ERABILERAN GORA EGITEKO GILTZA

Ordiziako kalean, eta hori "pozgarria da".

Ordizian goranzko bilakaera eman da era nabarmenean azken 18 urteotan. "Horretan, ziur gaude, Jakintza ikastolan egindako lanak badu zerikusia; eta bestalde, kaleko hizkuntza errealitatean aldaketa emanak laguntzen dio Jakintzari

"Ikastolen hasierako garaietan uste genuen euskaraz irakatsita gizartea euskaldunduko zela"

ANTTON AMONDARAN

bere hizkuntza helburuak hobetzen", Anttonen ustez. Bi aldetako eragina da, beraz.

Jakintza ikastolan urtero egiten da Ikasturteko Hizkuntza Plangintza eta ikasturtean zehar zenbait gune esanguratsutan erabileraren neurketak egiten dira. **Horren harira, azken neurketek diotenez, batz bestea, LHko ikasleen %95ek jotzen du euskarara, DBHkoen %90tik gora eta DBHOn %85tik gora dira euskara erabiltzen dutenak.** Datuak, oso onak. "Segur aski, Jakintzan egin den lanaz gain, alde izan ditugu arestian aipatutako eragile asko: jatorrizko hizkuntza, familiako hizkuntza, inguru hurbilekoa...".

23 urteko ekinbidea

Egoera horretara iristeko, ordea, lan luzea egin da Jakintzan. Zehatzago esanda, 1990. urtean jarri zen indarrean Euskaraz Bizi plangintza, eta ordutik hona egindako lanaren ondorio ere badira aurten ikastolak jaso dituen emaitzak, Euskaraz Biziko lankide diren Bixen Mujika eta




Garbiñe Jauregiren esanetan.

"Aurten sumatu dugu, geure pozerako, DBHn ikasleek euskarara jotzeko joera sendoagoa dutela, eta pertzepzio sendoa daukagu gora ari garela egiten Euskaraz Bizi plangintzari esker" dio Bixenek.

Baina zertan datza Euskaraz Bizi lan-proposamena? "Oro har euskararen normalkuntzan indar egitea du helburu, ezagutzatik erabilerarako jauzia ematea, eta horretarako ikasleen motibazioa bilatzen da; hau da, Jakintzako

gizartean euskaraz egitea lehenesten da eta praktika hori txalotzen eta goraiatzen. Hori ikasleak nabaritu egin behar du bere barnean, eta hori bere subjektibitatean finkatzen bada, segur aski, hurrengo aukeran ere euskara hautatuko du euskara dakienarekin" dio Anttonek. "Ikaslea motibatzeke arrazoiketarako eta gogoetak baino indar gehiago du euskaraz eginez gustura sentitzeak, pozik sentitzeak eta hori egitean Jakintzako gizartearen babesa jasotzeak" jarraitzen du.



Ildo horretatik ulertu behar dira antolatzen diren hainbat ekimen: jolastorduan jolasak antolatzea, ikasle helduagoak gazteagoekin kidetzea eta elkar eragitea, kirol lehiaketak antolatzea eta bertan euskararen erabilera bultzatzea, Euskaraz Bizi eguna Ordiziako

kalean, etab. "Ikasleentzat gogoko diren ekintza horiek euskararekin lotzen baditugu ikaslea motibatzen ari gara eta euskararekiko atxikimendua sendotzen doakio" azaldu du Bixenek. "Horrela, apurka-apurka bada ere, ikaslea ikasgelatik kalera ateratzean ikastolan izan duen hizkuntza portaera bera kalera ere hedatzen joango da. Horrela diote behintzat neurketan jaso ditugun datuek" jarraitu du Garbiñek.

Aktore ezberdinen zeresana

Ikaslea motibatzeke ikastolan egiten diren eginahalek ez lukete hain emaitza onik emango ikastolan esandakoaren erreferentziarik ez balute euren gizarte hurbilean, hau da, batez ere, familian, lagunartean eta aisialdian. Aipaturiko eremu horietan ere euskararen aldeko mezua eta praktika jasotzen badu ikasleak ikastolan egindakoak emaitza paregabeak emango ditu. Alderantziz, ikasgelan euskara nagusi izan arren, hurbileko harreman sarean gaztelera bada nagusi, euskararen aldeko hizkuntz portaera ez da behar bezala finkatuko.

Bide beretik joz, "ikastolako eremuan, irakasleek, bertako langileek zein begiraleek daukaten betebeharrak oso garrantzitsuak da". Horiek guztiak eredu izan behar dute, euskararen aldeko erreferentzia

emaile eta euskararekiko lotura afektibo goxoa transmititu behar dute" dio Garbiñek. Horrela lortuko da Ikasturteko Plangintzak emaitza onak ematea.

Euskaraz Bizi lan-proposamenarekin lehen harremana Lizarrako ikastolan izan zuen Anttonek. Eta han ikusi zuen irakasleek, begiraleek eta langileek zer nolako lana egiten zuten. "Batzuk besteak baino militanteago izango ziren agian, baina denak ziren profesionalak. Izan ere, irakasleok gara euskal kulturaren lan egiten dugun profesionalak, eta profesionalak garelako gure egiteko garrantzitsuenetakoa da, besteak beste, euskararen normalizazioan eragitea, euskara baita euskal kulturaren oinarria" dio Bixenek.

Eta aurrerantzean

23 urteko ibilbide horretan Euskaraz Bizi lan-proposamenak aukera eman dio Jakintzari hizkuntza helburuak betetzen joateko. Eta esan bezala erabilera datuak esanguratsuak dira. "Gure egitekoa da, beraz, dugunetarik abiatuta estrategiak hobetzen joatea eta geure ekarpena egitea euskararen normalizazioan", Anttonen arabera.

Eta Euskal Herriko Euskal Eskolak ere euskararen normalizazioan aurrera egin nahi badu, Anttonek beharrezko ikusten du Hizkuntza Proiektu trinkoa adosturik izatea eta lekuan lekuko ezaugarri soziolinguistikoak abiapuntutzat harturik euskararen erabilera bultzatzea. "Hori egin ezean, euskara ikasketa hizkuntza bilakatuko da, baina ez bizitzakoa. Hau da, ez du lekurik izango eguneroko egoera gatz-piperdunen munduan; beste era batera esanda ikasleak gogokoen dituzten esparruetan euskarak ez du izango behar hainbateko sarrerarik", dio.



Hacer el euskera atractivo, imprescindible a la hora de mejorar su uso

“Los que anduvimos en los inicios de las ikastolas, siempre pensamos que con la mera enseñanza del euskera se euskaldunizaría la sociedad”. Son palabras de Antton Amondarain, exprofesor de Jakintza Ikastola, y miembro impulsor del proyecto Euskaraz Bizi. El tiempo no le ha dado la razón, y prueba de ello es el estudio Arrue que acaba de publicar el Departamento de Educación del Gobierno Vasco. En datos relativos al término de 2011, en Gipuzkoa, Araba y Bizkaia, ha subido el manejo del euskera dentro del aula, pero fuera de él no ha ocurrido lo mismo. Entre los alumnos de 9-10 años, el uso del euskera dentro del aula es del 60%, pero una vez fuera, el 60% opta por comunicarse en castellano; por otra parte, el 60% de los jóvenes de 13-14 años hablan en castellano dentro del aula, y el uso se extiende al 75% fuera de él. “Son datos escasos, y demuestran que se puede hacer más de lo que se hace”, dice Antton.

El uso del euskera es mayor a nivel de Ordizia. Según la medición que hizo Soziolinguistika klusterra en 2011, el 57% de los niños hablan en euskera fuera de clase, y entre los jóvenes el uso asciende al 44%. Este estudio muestra que la tendencia se está aumentando con el curso de los años. “Y eso es muy positivo. En cierta parte, eso ayuda a que en el ámbito de la ikastola también aumente el uso del euskera, y viceversa, que la ikastola haya ayudado a los ordiziarra a que opten el euskera”, dice Antton. En Jakintza cada año se pone en marcha un plan para fomentar el euskera, y dentro de él, el grupo Euskaraz Bizi realiza cada año una medición de su uso entre los alumnos. Según las últimas mediciones, el 95,32% de los alumnos de Primaria optan por comunicarse en euskera, en ESO el 90,08%, y en el Bachillerato el 89,28%. En ese aspecto, Antton cree que diversos factores han podido afectar a estos datos: “el idioma de origen, el de la familia, que sea el más cercano etc.”.

23 años trabajando con Euskaraz Bizi

Para llegar a ese punto, se ha trabajado de manera constante desde 1990. En ese año se puso en marcha el plan Euskaraz Bizi, donde se intenta motivar al alumno a hablar en euskera. “Es imprescindible tener contento al alumno hablando euskera, y para ello hay que reforzarle cada vez que lo habla”, dice Amondarain. En ese sentido, durante el transcurso del curso se realizan varias actividades: juegos en el recreo, euskaraz bizi eguna, deportes etc. “Buscamos la motivación, y eso es muy importante para hacerles el euskera más atractivo”, dice Bixen Mujika, miembro del grupo Euskaraz Bizi.

Pero dichas actividades no son válidas, si el alumno no tiene alguna referencia. Es decir, aunque el euskera sea el idioma predominante en el aula, si el alumno sale al exterior y el castellano tiene mayor referencia, y de esa forma se puede perder el trabajo realizado. Por ello, es “fundamental” el trabajo que desempeñan los profesores y trabajadores de la ikastola. En opinión de Amondarain, “todos los profesores tienen la obligación de impulsar el euskera, porque en sus sueldos entra la función de dinamizar la cultura vasca, y por consiguiente también el euskera”. Por consiguiente, profesores, padres, miembros del comedor, o el chófer del autobús tienen que adherirse al plan. “Si no hay un plan sistémico, y no hay una colaboración de estos actores, los datos de utilización del euskera seguirán siendo escasos”.

Durante 23 años Jakintza Ikastola ha fomentado el euskera por dicha vía, pero no por ello, la solución pasa por aplicar el plan en todos los lugares, “porque en cada ámbito hay diferentes situaciones”. En la ikastola, por lo menos ha funcionado correctamente.

excepcional para los estudiantes, y estudiar en época de exámenes”, ha dicho. En su opinión es fundamental que los estudiantes tengan un proyecto que le motive verdaderamente. “Pero luego tendría que lograr alguna financiación, y eso

POT O IRRATIA BERRIRO MARTXAN



Azken bi urte hauetan, musika eta grabazio zaharrak emititu besterik ez du egin Potto irratiak. Egoera hori aldatu nahian, lanean jarri zen DBHko ikasle talde bat, eta irratiaren berrerabilpenean pentsatzen hasi ziren 2012 urte amaieran.

Ostiraletan klaseak amaitutakoan, bokadiloa jan eta arratsaldeko 15:00etatik 16:30era bitartean, otsailaren 1etik aurrera beraien ekoizpenak emititzen hasi dira.

Potto Irratian programa interaktiboa egin nahi dutenez, sare sozialen bitartez entzuleek ere parte har dezakete. Zuzenean aritzen dira ostiralero, baina ikasle askok entzuteko aukerarik ez dutenez, teknologia berriak erabiliz irratsaioa grabatu eta blogean jartzen dute astero.

BEASAINGO IDAZ LEHIAKETA

Otsailaren 16an egin zen Igartza jauregian, aurtengo Beasaingo idaz lehiaketaren sari banaketako ekitaldia. Irati eta Ekaitz Goikoetxea anai-arrebek dotore jardun zuten aurkezpen lanak egiten, eta bertaratu ginenok aukera izan genuen sarituak ezagutu, eta bide batez, euren lanak txalotu ahal izateko.

Aurtengo lehiaketa oso

oparoa izan da Jakintzako idazleentzat. Gure ikastolako ordezkari zabala inguratu zen Igartza Jauregira sariak jasotzera. Guztira 8 sari lortu dituzte gure ikasleek aurtengo lehiaketan.

Goiz ederra igaro genuen Beasainen eta esan beharrik ez dago, oso pozik itzuli ginela Ordiziara.

Bejondeiela Jakintzako idazleei!



ZIRKUA DATOR



“ Zirkua bat datorkigu, kalean zehar ikusi dugu, tzun pa tzun pa tzun...” Horrela eman zioten hasiera 4 urtekoek, oihaneko animaliak gaitzat hartuta egindako zirkuari. Lehoiak, tximinoak, elefanteak, domatzaileak, pailazoak eta baita aurkezlea ere; hantxe ziren guztiak zein baino zein dotoreago! Orroak, tximinokeriak eta makina bat pailazokeria ikusteko eta entzuteko aukera paregabea izan genuen urrutira joan gabe. Izugarri gozatu eta gozarazi zuten gure txikiek. Ikusi besterik ez dago!

Después de dos años sin apenas actividad, un grupo de alumnos de la ESO ha decidido poner en marcha Potto irrati. Todos los viernes, después haber acabado con las clases, realizan un programa de hora y media.

El concurso de literatura de Beasain ha sido muy fructífero para los alumnos de Jakintza Ikastola. En total han obtenido ocho premios, por lo que estamos muy satisfechos con los resultados obtenidos.

A la clase de los alumnos de cuatro años acaba de llegar el circo. ¡Mirad, que bien se lo pasan!

KULTUR ASTEA

Neguko lozorrotik esnatzen ari da natura. Berehala eskainiko digu bere ederraren ederra jantzirik dotoreenak soinean dituela. Eta guk ere, horrelaxe hartu nahi dugu.

Horretarako, Aste Santu aurreko aste honetan, Jakintza ikastolako kide guztiok daukagun onena eskaintzeko prestatu gara. Gure arropa ponpoxoenak aldean ditugula udaberriari ongi etorria emateko prestatu gara. Kultur astea ospatu dugu.

Etorri dira idazleak ikasleekin solastera, eta ikusi ditugu dantza saio bikainak. Entzun diegu ipuin kontalariei, hamaika jolasetan parte hartu dugu, antzerki ikuskizunik ere ez da falta izan, eta irten gara kanpora elkarrekin bazkaltzara. Urratu ditugu eztarriak abestuz, adi-adi entzun diegu hizlariei, jolas parkeetako armiamak uxatu ditugu edota sukaldari handien errezetak gainditu ditugu...

Eta hori guztia giro jator eta alaiaren saltsa batez maneatu. Ez da ongi etorri kaxkarra ezta? Gu, gustura gaude behintzat.

PINTXO LEHIAKETA

Gure osasunerako guztiok dakigu zein garrantzitsua den ondo elikatzea, hau da, elikadura orekatua edukitzea. 5. mailako ikasleak horretan aritu dira: zer eta nola jaten dugun aztertzen.

Lehenik, gure gorputza nolakoa den eta nola lan egiten duen aztertzen aritu dira, batez ere, liseri aparatua.

Ondoren, janariak ahoan sartzen ditugunetik bukaera arte ze bide jarraitzen duen ikusi dute.

Eta azkenik, janarien osagaiak landu ondoren, pintxo lehiaketa antolatu dute, ikasi duten hori praktikan jartzeko.

Bakoitzak bere pintxo orekatua prestatu du osagaiak kontuan hartuta. Norberak prestatutako errezetarekin batera, osagaien zerrenda eta balio nutritiboak adierazten dituen txartel bat egin dute eta pintxoari izena jarri diote.

Lanak amaitu ondoren, epaile adituek, hau da, jangelako

arduradunek, pintxo guztien balorazioa egin dute. Ekoizpen guztiak goi mailakoak direla ikusi da.

Beste modu batera ezin, eta hamaiketako bikain batekin eman diote bukaera proiektu honi, pintxo ezberdinak dastatuz.

Beraz, zorionak 5. mailako neska-mutilei eta badakizue... Jan osasuntsu eta izan zoriontsu!



UDALEKUAK

Elurrak bide bazterretatik eta mendi tontorretatik alde egin baino lehen hasi gara pentsatzen zer egin udan.

Jadanik Ikastolen Elkarteko eta Foru Aldundiko eskaintzak iritsi zaizkigu, eta urteroko moduan, bada zer eta non aukeratu.

Informazioa, nola ez, ikastolan bertan izango duzu eskura. Baina, jakin, aurten ere, ekainaren bukaeratik uztailearen erdirako tarte horretan ingeleseko udalekuak antolatuko ditugula Jakintza ikastolan. Emango dizuegu aurrerago eskaintza horien berri.



Esta semana anterior a la Semana Santa, en Jakintza ikastola hemos celebrado la semana cultural. Han venido escritores, bailarines, actores, cuenta cuentos etc. Hemos recibido a la primavera de la mejor manera posible.

La alimentación es una asignatura fundamental para nuestra salud. Partiendo desde esa afirmación, los alumnos de 5º han analizado lo que comemos. Para empezar han adquirido conocimientos sobre el aparato digestivo. Por otro lado, han estudiado el camino que realiza la comida dentro de nuestro organismo. Y para finalizar, los alumnos se han puesto manos a la obra, y han realizado un concurso de pintxos.

La Diputación Foral, y Ikastolen Elkartea acaban de mandar las propuestas para las colonias de verano. También queremos aprovechar para anunciar que Jakintza ikastola este año también realizará las colonias de inglés. El que esté interesado, no tiene más que ponerse en contacto con nosotros.

irteerak

Boga-boga marinela

Haur eta gazteak itsas mundu eta kulturara hurbiltzeko asmoarekin, eta itsasari hain loturik egon den gure herriko historia eta identitateari buruz ikas dezaten, Bilboko Itsasadarra itsas museoa hainbat aktibitate ditu programatuak, hezkuntza maila ezberdinak kontuan hartuta.

LH2ko ikasleek, gelan itsas inguruko jarduera ugari egin ondoren eta beren ezagutza gehiago zabaltzeko asmotan, parte hartu dute museoa eskaintako aktibitate ezberdinetan.

Fantasiarik beterik, itsas zabalean barrena ibili dira: balea erraldoiak harrapatzen, txalupak eraikitzen, piraten barkuak erasotzen, altxorra bilatzen, lurralde berriak aurkitzen... Marinela ote dira? Belaontzietako kapitainak? Ontzigileak? Piratak ala kortsarioak? Ametsak amets, errealitatea errealitate, dakiguna da gustura ibili direla eta itsas munduaz asko ikasi dutela. Ikasleei aaldetu besterik ez dago!



Eskiatzera irteera

DBH3ko ikasleak etorri berriak dira Somport-en eskiatzen ibiltzetik. Eguraldi ona eta eskiatzen ikasteko giro ezin hobea topatu dute bertan, eta baita aprobetxatu ere! Josu, aurtengo Euskadiko txapelduna, eta Javier, eskiaren munduan esperientzia handia duena, izan dira gure ikasleen irakasleak, eta etekin ederra ateratu diete. Hiru egunez luzatu den irteera honetan ederki ikasi dute eskiatzen, eta batez ere, majo gozatu dutela esan dezakegu. Bigarren urtea da ikas-bidaia modu honetan egiten dugula eta esperientziarekin oso gustura gaude.





1977an jaiotakoak.



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g

tfno. 943 16 05 40

faxa. 943 16 07 90

20240 ORDIZIA

ordizia@ikastola.net

